

Storbais

Herriko musika taldeen aitzindari da Storbais, aurten 20 urte bete baititu, eta maletan taldekide ezberdinak, hamaika kontzertu eta mila bizipen dituzte. Euren estilo metaleroa mantenduz bidea egiten jarraitzen dute oraindik ere, patxadaz, eta urte emankorrenen emaitzak 2 disko eta VHS batean jasoak daude.

- Noiz sortu zenuten taldea?

Gure taldea 1992ko ekainean jaio zen, martxan zeuden bi musika talde batu ostean. Batek, 'Todos al suelo', hardcore-punka jorratzen zuen eta besteak, 'Phobia', trash metalean aritzen zen. Bi talde horiek, herriko hainbat musika taldek grabatu zuten 'Rock the pueblo' maketan parte hartu zuten.

- Zergatik 'Storbais'?

Gizarteari kalte egiten dion jende guztiari zuzenduta dago gure izena: kasta politikoa, bankuak, multinazionalak, esplotatzaileak, armada, eliza eta munduan dauden bestelako muntaia erlijiosoak (gizarte-lan garrantzitsuak egiten duten erlijiosoak izan ezik) eta abar.

- Zeri buruz hitz egiten dute zuen abestiek?

Alde batetik salaketa soziala egiten dugu. Beste abesti batzuetan irakurritako liburuetan edo esperientzia pertsonaletan oinarritzen gara, ametsak eta nahiak, barne-begirada duten pentsamenduak, bai munduari buruz zein inguruan ditugun gizakiei eta geure buruei buruz.

- Nortzuk osatzen duzue taldea?

Gaur egun Txino, Barru, Moshky, Fory eta Xabi gara. Fory eta Barru hasieratik daude taldean, Txino 94an hasi zen eta Moshkyk eta Xabik hainbat urte darabate gurekin. Gainera, XNI 10 urte inguru egon zen taldean, Pachón eta Martin hasierako urteetan egon ziren... Txanprax, Javi eta Alfredo ere gurekin izan dira urte batzuetan zehar eta baita Alber ere.

- 20 urteko ibilbidean, zenbat lokaletan entsetatu duzue?

Eitzagako negutegian egon ginen hainbat urtez eta jarraian lagun baten garajeetan entsetatzen hasi ginen, Trabakuan. Handik Eibarko Legarreko lokale-tara joan ginen eta azkenik eta behingoz Ermuko Betiondoko lokale-tan. Urte larregi itxaron behar izan dugu herrian musika taldeentzako lokalak izan arte!

- Eta hasi zinetenetik, aldaketarik egon da zuen musika estiloan?

Argi dago bilakaera bat egon dela gure teknikan eta guregan eragina duten musika joeretan. Hasieran baino 'metaleroak' garela esango nuke, baina gutxi gora behera hasierako estiloari eutsi diogu.

- 2012an zuen 20. urteurrena bete duzue. Zer ikusten duzue atzera begiratzean?

Bizipen, anekdota eta esperientzia mordoa... gehienak oso atsegin eta aberasgarriak.

- Ospakizun berezirik egin duzue?

Kontzertua egiteko asmoa genuen. Kontzertuaz gain, ez dakit zer gehiago egin genezakeen...

- Eta zein da taldeak eman duen kontzerturik onena?



Taldekide bakoitzak bere iritzia izango du baina nik (Javi Barrutia) Aritzmendi pilotalekuan Reincidentes eta hainbat musika taldeekin batera egindako emeraldia dut gogoan, hala nola Elorrikoa S.A.rekin, Leitzakoak, Santixauetakoak, Cuéllarrekoak, Alhama de Murciaok, Ávilan eman genuen lehen kontzertua, non entzuleak abeslaria baino gehiago entzuten ziren. Ez dago lekuri gogoan ditugun guztiak aipatzeko!

- Zein egoeratan dago taldea egun?

Entsetatzeko nahia baino ez dugu aspaldidanik, noizean behin jo eta etorkizunean zerbait grabatu... Taldekide bat Ermutik kanpo bizi da aspaldidanik, beste batek seme-alabak ditu eta gainerako taldekideek, beste talde batzuetan ere jotzen dute. Zer esango dizut ba!

- Non eman zenuten azken kontzertua eta noizko hurrengoa?

Azkena Infreñu tabernaren urteurrenean eman genuen eta hurrengorik ez dago oraindik... ez daukagu presarik!

- Zenbat disko kaleratu dituzue?

3 grabazio ditugu eta edizioei dago-kienez, 2 disko konpaktu eta VHS bat daukagu. Aspaldikoak dira, baina lortu nahi dutenek gurekin harremanetan jarri baino ez dute egin behar.

- Zuekin harremanetan jartzeko...

Telefonoz egin daiteke, 607273731 zenbakian edo Internet bidez: storbais@gmail.com helbide elektronikoan, www.myspace.com/storbais webgunean edo taldearen Facebook orrian.



Yoga eskola
Sanatana Dharma



* Osteopatia
 * Bertebrologia
 * Anginak sendatzeko masajea...

San Roke 24, behea
 943748593 · 685722131 (Idoia)





Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE